



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Egunero Champions League-ko finala jokatzeko dugula dirudi”

Eneko Atxa | Azurmendi jatetxea

Pasioaren suan egosten ditu hausnarketak. Horregatik jaso zuen, akaso, jatetxea zabaltu eta bi urtera, lehenbiziko Michelin izarra. Bon appétit!

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Iñigo Azkona

Zabor gehiegi ekoizten dugu, tele-zaborra ikusten, eta jan ere...

Ur falta ala ekologia bezala, hori ere denon arazoa da. Arazo larria. Ez dago egunero jate-txeetan bazkaldu beharrik, etxean ere jan daiteke sano eta azkar.

Sano eta azkar, nire patrika argalduko litzateke, egunero zuenean bazkalduta.

Gure helburua jendeari plazera ematea da. Joaterakoan ez dezatela prezioan pentsatu, hartu duten gozatuaren baizik.

Lasai, jendeak chef-a salara ateratzen ikusten duenean dena ahanzten du!

Jendearengatik baino gehiago negatiboki egiten dut. Jendearen erreakzioa lehen eskutik jasotzea gustatzen zait. Oso neurgailu ona da.

Zein da kartan sartzeaz zauden plateren balizko arrakastaren neurgailua?

Gure aita oso klasikoa da, eta gure ama irekieragoa, berrizalea. Biei gustatzen zaizkien platerak salan arrakastatsuak izaten dira normalean.

Nik uste nuen arrakasta Michelin izarrean zetzala!

Lan talde osoaren satisfazioa da, eguneroko lanaren ordaina, baina ezin gara itsutu. Izarrak irabazi, mantendu ala galduta, guk bide ontzat daukagun hori jorratzen segi behar dugu.

Ez esan kritikoa noiz etorriko zain bizi ez zarenik.

Eguneroko lana ahal bezain perfektu egitea da onena. Kritikoa izan ala ez, datorrenak ezagutu dezala gure sukaldea den bezalakoa. Nahiago dut ezjakintasun horretan bizi.

Ezjakina ez, enpresaburua behar du hainbeste laguneko taldea kudeatuko duenak!

Familia bat gestionatzen den moduan gestionatzen dut sukaldea. Guztiaren gainetik, pertsonak dira garrantzitsuenak. Beraiek eramango zaituzte arrakastara ala porrotera.

Arrakasta gora eta arrakasta behera, zer arraio da arrakasta?

Norbaitek begiak itxi, ateratzen diotena jan, eta “plater hau Azurmendikoa da” esatea. Hori da errekonozimendurik handiena.

Horretarako jokatzeko duzu etengabe zure izena?

Horretarako, nire pasioa delako, eta bezeroa gustura uzteko. Azkenerako ohitzen zaren arren, sekulako tentsioa sortzen da. Egunero *Champions League*-ko finala jokatzeko ari garela dirudi!

Finalak irabazteko dira, baina galdu ere egin daitezke...

Egun batez ezer ikasi gabe joaten banaiz etxera, egun hori porrota da. Egundak, pertsona, eta egoera guztietatik ikasi beharra dago. Horri esker sortzen ditugu plater berriak eguneroko bizitzan oinarrituta. ■